

## **BATAILA GUZTIEN ARTEAN, NAFARRAK**

Entre todas las batallas, las navarras

Among all the battles, the Navarre's

Alberto BARANDIARAN AMILLANO

Berria

Fecha de recepción / Jasotze-data: 21-10-2012

Fecha de aceptación / Onartze-data: 30-10-2012

Artikulu honetan, 2012ko maiatza eta ekaina bitartean *Berria* egunkariako igandeko gehigarrian argitaratutako lau erreportajeren mamia biltzen da. Gai nagusia Nafarroako konkista izan zen, baina ikuspegi sozioekonomikotik begiratuta. Nolakoa zen garai hartako Nafarroa, nola esplikatu zen orduan, eta ondoren, gaztelarren konkista, eta zer nolako ondorioak izan zituen bertako eta orduko biztanleentzat. Horretarako, gaiari buruzko libururik esanguratsuenak kontsultatu, eta gaia jorratu duten historialari garrantzitsuenekin egindako elkarrizketak baliatu genituen.

Giltza-hitzak: 1512ko konkista. Nafarroa. Gaztela. XV. mendea. Euskara. Historialariak.



El texto recoge lo fundamental de una serie de cuatro artículos publicados entre el 20 de mayo y el 10 de junio de 2012 en el suplemento dominical del diario *Berria*, sobre el territorio y la población navarra en la época de la conquista. A través de la consulta de los libros más significativos sobre el tema, y la entrevista con varios de los más importantes historiadores navarros, el texto es un esfuerzo por explicar la situación social, económica y política de Navarra a finales del siglo XV, el tratamiento que de la conquista hicieron los cronistas de la época y los historiadores posteriores, y las consecuencias que la conquista tuvo en la población navarra.

Palabras Clave: Conquista de 1512. Navarra. Castilla. Siglo XV. Euskera. Historiadores.



This text includes the essence of a series of four articles published between May 20 and June 10, 2012, in the sunday supplement of the *Berria*'s newspaper, about the territory and the population of Navarre at the time of the conquest. Through the examination of the most significant books on the subject, and the interview with several of the most important Navarrese historians, the text is an effort to explain Navarre's social, economic and political situation in the late 15th century, the conquest's treatment that chroniclers of that time and subsequent historians made, and the consequences that the conquest had on the Navarre population.

Key words: Conquest of 1512. Navarre. Castilla. 15<sup>th</sup> century. Basque. Historians.

## AURKIBIDEA

I. KONKISTA AURREKO NAFARROA. II. NEKAZARITZA, ABERASTASUN ITURRI. III. ERDI AROKO OHITURAK ETA SINESMENAK. IV. EMAKUMEAK, IKUSPEGI ERLIJIOSOAK AZPIRATUTA. V. DEMOGRAFIA GORA MENDEAREN AMAIERAN. VI. LEIREKO ABADAREN HIZKUNTZA. VII. KONKISTAREN ESPLIKAZIOA: GOGO ONEZ ONARTUTAKO KONKISTA LASAIA? VIII. URTEBETEKO KONKISTA. IX. JUSTIFIKAZIOAK ETA ARGUDIOAK. X. ESPAINIAKO ZEIN NAFARROAKO HISTORIALARIAK. XI. ERREPRESIO POLITIKO ETA ERLIJIOSOA. XII. KONKISTAREN ONDORIOAK: MODERNOAGOA, KONTROLATUAGOA, UNIFORMEAGOA. XIII. IZURRIAREN ZIGORRA. XIV. EMAKUMEAK, KALTETUENAK. XV. KONTRARREFORMA IRAKASKUNTZAN

### I. KONKISTA AURREKO NAFARROA

Nafarroako konkistari buruz asko ikertu da, eta asko idatzi. Errege-erreginen dinastiei buruzko doktore tesiak argitaratu dira, leinuen arteko gorabeherekin liburu ugari kaleratu dira, eta estatuburuen interesekin eta aita santuen buldekin izaniko zalaparta diplomatikoak argitzeko kongresuak antolatu izan dira. Badakigu zer nolako balentria militarrek egin zituzten dukeek eta mariskalek, eta zer garrantzitsuak izan ziren armaden arteko halako eta halako guduak. Baina non daude herritarrak, garai hartako gizon-emakume nafarrak? Non dago orduko egoera soziala, ekonomiko eta kultura laburbiltzen duen kontakizuna? Zer dakigu XVI. mendeko Nafarroa hartaz?

Nafarroako Erresumak krisi sozial, politiko eta ekonomiko larria eta etengabea pairatu zuen XV. mendean. Arazoa ez zen berria, eta ez zen Nafarroakoa bakarrik. Feudalismoaren beraren porrotak eragindako krisi orokorra zen, sistematikoa, Europa osokoa. Noble, errege-erregina eta aita santu borrokalari guztien aberastasunak eskubide feudaletan oinarrituta zeuden, baina gerra amaigabeek, beherakada demografikoek –batez ere, Europa osoa astindu zuten izurriteek eragin zituzten– eta, ondorioz, pobrezia, gatazkak eta liskarrak areagotu zituzten. Euskal lurraldeetan, ahaideen arteko borrokek asko ahuldu zuten bertako ekonomia, eta Nafarroan, gainera, monarkia sendo bat zegoen. Hitzarmenak, lotu-

rak eta interesak askoz indartsuagoak ziren, beraz, eta horrek are arriskutsuago bihurtu zituen jauntxoek arteko ezinikusi sekulakoak.

Beaumontarrak eta agaramontarrak erresumako protagonista nagusi bilakatu ziren.

Nafarroa, gainera, baliabide ekonomiko handirik gabeko lurralde txiki bat zen, jende gutxiko landa eremu bat, bi estatu handi eta boteretsuren artean. Espainia Europako potentziarik handiena zen behin karabelak Ameriketaraino eramane eta musulmanak garaituz geroztik, eta Fernando eta Elisabet errege-erreginen apeta politikoa penintsula osoa menderatzea zen. Nafarroa eta Portugal falta zitzaizkien. Frantziak, berriz, Espainiaren kontrapisua izateko borondatea zeukan. Borondatea eta ahala.

Bi erraldoiren artean estututa zegoen, beraz, Nafarroa (*Utrique roditur*); independentziari eusteko artean gogoz, baina era berean larri. Hitzarmen, tratatu, traizio eta interesak, mila.

Baina nola bizi ziren garai hartako nafarrak? Nobleak, sendi boteretsuak, kondestableak, mariskalak, errege-erreginak, aita santuak eta dukeak zer-nolako gizartearen gainean jokatzeko ari ziren Nafarroako historia betiko erabaki zuen joko partida?

## II. NEKAZARITZA, ABERASTASUN ITURRI

Esan dugu ez zela lurralde aberatsa. Nekazaritza zuen bizibide nagusia, baina jabegoa oso banatuta zegoen, eta uzta txarren garaietan, herriak erraz jendegabetzen ziren. Baliabideetan preziatuenak mahastiak ziren. Ardo onena Vianakoa zen, baina Gareskoak ere bazuen fama. Iruñerri osoan mahasti sail handi samarrak zeuden, baina ardo txarra zen bertakoa, merkea. Herriak edaten zuena.

Ardoa, nolana ere, ez zen diru iturria. Gehiena nafarren kontsumorako ekoizten zen, eta kasu bakan batzuetan, Gipuzkoan edo Aragoi edo Gaskonia aldean gabezia zegoenean, esportatzeko ere bai. 1428an, esaterako, Atarrabian bakarrik ardoa ekoizten zen. Mendialdean, eta Nafarroa Beherean, txerri hazkuntza zen jarduera garrantzitsuena. Txerri garraio handia zegoen Pirinioez gain. Kontaduriak hala dio.

Luxuzko industriaren berririk ez dago, eta erresumako agintari nagusiak kalitatezko oihalak egiteko zentroak sortzen ahalegindu baziren ere, halako oihalgahienak Flandriatik edo Ingalaterratik ekartzen zituzten. Olak ugari ziren Pirinio osoan, baina armagintza ez zegoen batera garatua. Hala eta guztiz ere, XV. mendea aldamen garaia zen: Erdi Aroa amaitzen ari zen, Aro Modernoa hurbiltzen, eta estatuak gero eta indartsuagoak eta boteretsuagoak ziren, eta estatuen egitura korapilatzen ari zen. Nafarroako administrazioak hiru erakunde goren

zituen: Errege Kontseilua, Gortea eta Kontu Ganbera. Kontseilua gobernua zen, eta erresumako jende boteretsuenak osatzen zuen. Gorteak nobleen eta jaun-txoeren parlamentua ziren, eta Kontu Ganberak, berriz, diru bilketa kontrolatzen zuen.

### III. ERDI AROKO OHITURAK ETA SINESMENAK

Albret etxeko Joanes eta Katalina izan ziren azken mendeetako errege-erreginen artean Nafarroa gertuen bizi izan zutenak, eta erresuma modernizatzen ahalegindu baziren ere, nabarmendu behar da gizarte ohiturak eta sinesmenak oso Erdi Arokoak zirela oraindik. Esaterako: Foru Nagusian indarrean zeuden zigorrei begiratu, eta izutuko ginateke. Kapareek edo odol garbikoek ez zioten erregeari ordaindu behar beren gisako beste inor hiltzeagatik, bai ordea frankorik, mairurik edo judurik garbituz gero. Heriotzak ez zuen, hala ere, berdin balio: Iruñerrian mila soldata kostatzen zen, edo haren baliokidea artoan edo ardotan; mendialdean, ordea, 240 baino ez. Maisu batek ikaslea hiltzen bazuen «nahi gabe», ez zuen zertan deus ordaindu, eta hildakoaren senideek ere ez zuten haren kontra jotzeko eskubiderik. Foruak ez du zehazten zer dela-eta eta nola hil zezakeen irakasleak bere ikaslea.

Adulterioa gogor zigortuta zegoen, baita harrika hiltzea ere, baina zigorrik gogorrenak emakumeentzat ziren: bortxaketa egonez gero, legeak gizona behartzen zuen emakumearekin ezkontzera. Gizonak nahi ez bazuen –ez da aipatzen emakumearen nahiaz deus–, erbesteratu egiten zuten. Homosexualitatea (*sodomia*, orduko hizkeran) gogor zigortuta zegoen, eta 1360an mairu bat sutara kondenatu zuten, asto batekin harremanetan aritu zelako. Ugari dira, esaterako, apaizen aurkako epaiak, sexu harremanak direla eta. Roldan Jimenok ondorioztatu du elizgizonen artean ohaidegoa ohikoa zela. 1477an, esaterako, urrezko sei marabediko isuna ezarri zieten emakumeekin bizi ziren apaizei.

### IV. EMAKUMEAK, IKUSPEGI ERLIJIOSOAK AZPIRATUTA

Bistan da emakumeen egoera ez zela samurra. Ikuspegi erlijioso zorrotzak edozein parte hartze publikoa galarazi zuen Erdi Aro osoan, eta emakumea, askotan, bekatu, akats eta hoben guztien sinbolo bilakatu zen. Kronika edo historia liburuetan agertzen diren emakume bakarrak erreginak dira, eta epai publikoetan jasotako lekukotasunak mespretxuz eta destainaz josita daude. Eskribauak, legelariak, arduradun publiko gehienak, gizezkoak ziren.

Baina gutxi dakigu. Ez dago eguneroko bizitzari buruzko lehen eskuko informazio askorik. Eta, hala ere, dakigun gutxigatik, gogorra izango zela sus-

matu dezakegu. XV. mendearen amaieran eta hasieran, izurritearen oldarraldiek bata bestearen atzetik zigortu zuten Nafarroa. 1492an, esaterako, aurreko urteko uzta txarrak eraginda iritsi zen gaixoaldi berria, Zaragozatik iritsi ere, eta Erribera gogor astindu zuen. Handik Tafallara zabaldu zen, eta bereziki auzo judua zigortu zuen.

Baina mendearen amaieran egoera hobetzen hasi zela dirudi. Biztanleriak gora egin zuen azken hamarkadetan, izurriteak mende hasierakoak bezain gogorrek ez ziren seinale. Peio J. Monteano historialariak dio Nafarroak askoz hobeto ekin ziola XVI. mendeari XV.ari baino. Nolanahi ere 1502an, 1504an, 1506an eta bereziki 1507an, izurriak izan ziren, berriro, herrialde ia osoan. Herri handienetan, guardiak jarri zituzten ate garrantzizkoenetan, gaixoei sartzen ez uzteko. Susmagarri nagusiak ijitoak ziren, edo eskaleak. 1509an, Tuterako emakume bat hiritik urrun lurperatu zuten, izurriak jota zegoelakoan, eta urte bat lehenago Nafarroako diruzaina bera hiriburua utzi eta Faltzesko gazteluan jarri zen bizitzen, Katalina erregeak behartuta. Funtzionario gorenak babestu beharra zegoen, nonbait.

## V. DEMOGRAFIA GORA MENDEAREN AMAIERAN

Zenbat hil ziren horrelako gaixoaletan? Ez ditugu datu asko, baina badakigu Nafarroa ez zela biztanleria handiko lurraldea. Iruñean, esaterako, XV. mendearen erdian, 1.372 sutondo zeuden; etxeak, beste hainbeste. Mende osoan biztanleriak gora egin zuen; batez ere landa eremuetan, baina hiriburuan ere bai: 1553an, ia 2.000 sutondo zenbatu zituzten. Herrialde osoan 32.000 sutondo inguru zeuden, ia 150.000 lagun.

Hiriburuko gizarte egitura da hobekien ezagutzen duguna, eta oso adierazgarria da garai hartako Nafarroa ulertzeko. Noblezia, esaterako, ez zen beti Iruñean bizi. Hiri gotortu ugari zeuden Nafarroan, garrantzitsuak eta entzute-tsuak, eta handiki askok lotura sendoak zituzten hango eta hemengo gaztelu eta dorretxeekin: Viana, Tuter, Lizarra, Erriberri, Zangoza... Errege-erreginak Biarnotik edo Foixetik etortzen zirenean, noble asko haiei jarraikiz bizi ziren, maiz Iruñetik kanpo. Gobernuaren funtzionario nagusiak, ordea, hiriburuan bizi ziren urte osoan, Iruñea zelako gobernuaren egoitza nagusia. Jende xehearen artean, Nabarrerria auzokoak nekazariak eta eskulangileak ziren gehienak; bertakoak, euskaldunak. San Nikolasen eta San Zerninen, berriz, frankoak bizi ziren, asko eta asko merkatariak.

Bitxia da udal langileen errolda. Santiago Lasasak ondo aztertu zuena, eta erlojugilearena lanpostu garrantzitsuetakoa zela frogatu zuen. Hirira iristen zen guztiaz arduratzen ziren portaleko arduradunak, eta haien artean nagusia San Nikolasekoa zen, hortik sartzen zelako ardo gehiena. Eta ardoa lehen mai-

lako produktua zen garai hartan. Halaber, irin pisatzailea eta zilarraren markatzaile ofizialak zeuden udal langileen zerrendan. Orobat, pregoilariak, etxeratze aginduaren manatzaileak, eta musikariak, bereziki atabalariak. Baita gerrako jendearen harrera egile ofizialak ere.

## VI. LEIREKO ABADEAREN HIZKUNTZA

Hizkuntza? Nafarroan, nagusiki euskaraz eta erromantzez mintzo zen. Populazio gehiena euskalduna zela ez dago zalantzarik. Baina, merkataritza-trukerako eta, batez ere, administraziorako eta kulturarako, erromantzea zen erabilitako hizkuntza. Jose Maria Lakarra historialari handiak idatzi zuen dokumentuetan protagonista ia bakarrak diren izen nagusiak –errege-erreginak, kondestableak, mariskalak, apezpikuak...– nola mintzo ziren etxean ez jakitea benetako arazoa zela. Nola hitz egiten zuten intimitatean Iñigo Aristak, Leireko abadeak, Antso Azkarrak edo Iratxeko abadeak.

Florencio Idoate eta Angel Irigarai ikerlariek XV. mende hasierako Matxin Zalba eta Martin Sant Martin idazkarien arteko gutun bat argitaratu zuten, non bi funtzionario gorenek naturaltasun osoz tartekatzen zituzten euskarazko hitzak eta esaldiak:

Et jauna dizula abarion ez naiz bildur ezten ala. Eta jakizu, done Johane garazikoek dute grazia errege [baitarik?] huitean irurogei ta hamabi florin huitean baitator sei florin et terzio bat [hilean] rebatizera kolektoreari et alegra zaitez ongi. Zure guzia. Machin de Zalba.

Xabier Erizek, bestalde –euskararen historia soziolinguistikoa aztertu du– Nafarroako Foru Nagusian agertzen diren oihartzunak eta 1494an, Joan III.a Albretekoaren koroatze ospakizunetan, Iruñeko katedralean abestu zen euskarazko kopla nabarmendu zituen: «Labrit, eta Errege, Aita seme dirade, Kondestable Jauna, har bizate Anaie». Baina nolakoa zen euskaldunen muga etnolinguistikoa? Hots, zein ziren Erdi Aroko Nafarroan hizkuntzaren iraupena ziurtatzen zuten hormak? Erizek uste du hizkuntz errealitateak bereizita zeudela, baina zaila dela euskaldunen ikuspegia zein zen azaltzea, haiei buruzko berriek beti beste taldeek eman zituztelako: erromatarrek, bisigodoek, arabiarrek edo kristau erromantzeek. Ondorio gisa, Erizek azpimarratu zuen erdaldunak erdigunetzat eta euskaldunak bazterrekotzat jotzen zituen gizarte bat zela Erdi Aroko Nafarroa, eta hori lehen monarkia nafarrarekin ezarri zela.

Mende aldaketak horrelako gizartea aurkitu zuen Nafarroan. Oraindik Erdi Aroan bizi eta pentsatzen zuen lurralde txiki bat ez oso aberatsa, non herriarrak ikusle hutsak baitziren. Lurralde txiki bat, garaiko Europako bi koloso handien interesen amaraunean erortzeko zorian.

## VII. KONKISTAREN ESPLIKAZIOA: GOGO ONEZ ONARTUTAKO KONKISTA LASAIA?

Frantzia eta Espainia ahaltsuen interesen mesedetan panpina bat zen Nafarroa, beraz, 1512ko uztailean. Hondarreko hamarkadetako penduluaren politikak porrot egin zuela bistakoa zen, eta Katalina eta Joanes errege-erreginen ahalegin guztiak alferrikakoak ziren jada, ezin neutral agertu Europa osoa bitan zatitu zuen gatazkaren aurrean: Espainiarekin bat egin eta Liga Santuan sartu –aita santuak, Espainiak berak eta Veneziak bultzatuta–, edo Frantziaren alde lerratu eta *Borrokalaria* izengoitiz bataiatu zuten Julio II.a pontifizearen asmo guduzaleak geldiarazten saiatu, Erromako hierarkia erlijioso-politikoari botere pixka bat kentzeko.

Ahaleginak ahalegin, ezin erdian geratu, beraz, eta Katalina eta Joanes, Joanes eta Katalina, hondarrekoen artean Nafarroa gehien ezagutu, maitatu eta ulertu duten errege-erreginak, eskuak lotuta ageri dira 1512ko uztailean, gero eta konplikatugo bihurtzen ari den joko politikoaren mahaiaren aurrean. Fernando Katolikoak esan die nafarrei Frantziari eraso egin nahi diola, eta bidea libre behar duela Orreagatik barna Baionaraino iristeko. Esan die, gainera, ja nahi duela baimena, ez dagoela luzamendutarako. Albako dukearen armada Gasteizen dago. Frantziari eraso egitearena aitzakia bat da, aitzakia denez, Nafarroaz jabetzeko. Nafarrek badakite hainbeste.

Lurraldeko agintari gorenek bitako negoziazioa sustatu dute azken unera arte. Neutraltasuna agindu diete espainiarrei, baina lankidetzaz frantziarrei. Eta zaila da denekin ondo gelditzea. Zaila, garaiko erraldoi biak elkarren arerio amorratuak baitira. Beaumondarrak, gainera, gatazka dinastiko batetik sortutako nafarren bandoetako bat, Albako dukearekin bat eginda daude, sinetsirik horrela berreskuratuko dituztela beren ondasunak, agaramontarrekin eta Albret etxeko nagusiekin izaniko enegarren zalapartaren ondorioz bost urte lehenago galdutakoak.

## VIII. URTEBETEKO KONKISTA

Aguraindik barna dator, beraz, 1512ko uztail honetan, armada indartsua, 10.000 lagun inguru. Artilleria astuna, onena. Nafarroako erregeak ez du astirik izan erresistentzia antolatzeko, eta berrehun bat zaldun profesional baino ez daude prest, eta herri guztietan bildutako soldadu saldoa, ez oso ondo hornitutako boluntario sorta, lantza, ballesta eta abarren nahaspila. Nafarroan sakabanatutako dorre, gotorleku eta bastioiak estrategikoki ondo kokatuta daude, baina asko eta asko begiratokiak dira, inguruko herrietako biztanleei abisua emateko plazak. Ez dira garaiko armada modernoenari eusteko gauza. Hiri garrantzitsue-



nak, eta hiriburua, ondo babestuta daude gazteluez eta harresiez, baina bertako noble edo leinuaren arabera leialtasuna gordetzen dute.

Uztailaren 17an, Fernando Katolikoak bere armadaburuari idatzi dio: «Ez dut denbora gehiago galdu nahi». Uztailaren 21ean, Albako dukea Nafarroan sartu da Ziorditik. Ia ez da erresistentziarik egon, eta lau egun geroago Iruñeak ateak zabaldu dizkio inbaditzaileari, borrokarik egin gabe. Joanes Labritekoak uztailaren 30ean utziko du Nafarroa Garaia, Biarnoko bidean, Sauveterren erre- ginarekin elkartzeko. Abuztuaren hasieran, Irunberrik, Zangozak, Lizarrak eta Erriberrik amore emango dute. Irailaren 3an, Tuterak. Irailaren 23an, Tafallak.

Albako dukea Nafarroa Beheraino iritsiko da, baina gero atzera egin beharko du nafarrek bultzatuta. Iruñean gotortuko da, Joanes erregearen armadaren setioari aurre egiteko, eta, negoziazioak, altxamenduak, segadak eta gatazka ugari tartean, aurrera batzuk, atzera besteak, balentriak, traizioak eta koldarkeriak eta amarruak tartean, bada azkenean, 1513ko ekainean, Nafarroa osoa, hego eta ipar, gaztelarren menpe geratu da. Eta Nafarroaren independen- tziaren aldekoek inbasioa inoiz onartu ez bazuten ere, eta 1516an altxamendu indartsu bat izan bazen ere, eta 1521ean Henrike II.a Albretekoak Nafarroa hain- bat hilabetez berreskuratu eta gero Noaingo guduan berriro dena galdu bazuen ere, esan daiteke Nafarroak independente izateari utzi ziola Amaieurko gaztelua 1522ko uztailaren 19an erori baino hamar urte lehenago, eta, orduan, zazpi men- deko erresuma Espainiaren parte bilakatu zela *de facto*.

## IX. JUSTIFIKAZIOAK ETA ARGUDIOAK

Gaur egun, konkista nola baino, interesgarriagoa da konkista zertarako, zer dela eta, nork noren kontra. Interesgarriagoa da aztertzea, esaterako, esku hartze militarra nola justifikatu zuten batzuek eta besteek. Zer argudio eta ezta- baida, zer xextra erabili zituzten (eta dituzten) kronistek eta historialariek, Piri- nioetako erresuma txikiaren patua justifikatu eta gaur egun arte iritsi zaizkigun topikoak eraikitzeke, hots: Nafarroa txikiegia zela irauñ ahal izateko; Espainia- ren menpe erori ez balitz Frantziaren menpe amaituko zuela; Nafarroako errege- erregeinek Frantzia zutela buruan, eta ez zirela erresumako arazoez arduratzen; beaumontarrak traidore hutsak izan zirela; konkista lasaia eta erraza izan zela, eta ez zela errepresiorik izan...

Azken urteotako bibliografiak asko argitu ditu orain arteko topiko horiek. Alvaro Adot historialariak kronikari eta ikerlari guztien lanak aztertu ditu, ga- raia eta jatorria kontuan hartuz. Oso argigarria da batzuen eta besteen asmoak eta jarrerak ulertzeko. Esaterako: esanguratsua da baieztatzea ia ez dagoela XVI. mendeko azterketa historikorik Nafarroan bertan egina. Era berean, argigarria da antzematea historialari frantsesen argudioen sinplekeria konkista eragin zu-

ten arrazoien inguruan. Inbasioaren lan kanonikoaren egile Prosper Boissonnadek honako hau ondorioztatu zuen:

Nafarroak erraz onartu zuen bere patua [...]. Nafarrak batez ere eskubide lokalei eta bertako pribilegioei atxikita zeuden, eta indartsuenaren legeari ameto eman zioten [...]. Arraza, hizkuntza, ohiturak eta interesak berak zeuden, eta horrek erraztu egin zuen anexioa.

Hori izan zen iritzi lerro nagusia XX. mendera arte; Frantzia batez ere, baina baita Espainian ere.

## X. ESPAINIA ZEIN NAFARROAKO HISTORIALARIAK

Espainiako historialariek beti goraiatu zuten konkista, azken errege-erreginen jarrera lauso, ahul eta koldarra azpimarratuz. Joanes III.a Elizaren arerio moduan aurkeztu zuten, eta, horrela, zerutik zuzenean jausita moduan justifikatu zuten konkista: apelaezina zen. Adotek nabarmendu du Niccolo Machiavelli teoriko politikoak «printze txarra» definitzeko erabili zituen topiko guztiak agertzen direla kronikari espainiarren idazkietan. Alegia, Nafarroako azken erregea –Katalina berezko erreginaz apenas dagoen aipurik edo xehetasun biografikorik espainiarren kroniketan– ahula eta femenino samarra zela, koitadua, lasaia eta aiurri eskasekoa.

Espainolentzat, estatua armekin defenditzeko gai ez zen agintaria agintari txarra zen berez. Hor dago konkistaren zilegitasuna defenditzen dutenen bigarren oinarria.

Eta nafarrek nola bizi izan zuten konkista? Oso kronika gutxi daude, baina esanguratsuak dira. Diego Ramirez de Avalosek, esaterako, ez zuen erreparorik izan salatzeke agaramontar askok pairatutako «errepresio latza», inbasorearekin lan egin nahi ez izateagatik, eta nabarmentzeko, era berean, Nafarroaren konkista Espainiako Fernandoren aspaldiko asmoa zela.

Berrogeita hamar urte geroago, ia belaunaldi bat, bi testigantza ditugu, Martin Azpilkuetak eta Reta lizentziadunak idatzitakoak. Azpilkueta legegizona zen, eta intelektual goretsia bere garaian. Erroman aritu zen hainbat urtez, eta 1570ean idatzitako *Carta apologética*-n zuhur jokatu zuen, Nafarroan bizi ziren senideak babestu nahi zituelako, baina Nafarroako erregeei fideltasuna erakutsi zieten noble nafarren jarrera goretsi zuen hala ere. Retak, berriz, beaumontarren alde agertu, eta Joanes III.a gutxietsi zuen, nabarmenduz errege arrotza zela, Nafarroaz aprobeixatu eta erresumaren foruak errespetatu ez zituen. Beaumontarra ez zen traizioa izan, ezpada Nafarroaren eta foruen aldeko maitasuna.

Garbi dago nafarren arteko bandoek hor zirautea, eta garbi dago nafarrek ezin izan zutelako idatzi benetan nola bizi izan zuten konkista. Lekukotasun hurbil

hori falta zaigu, ukaezina baita ondorio latzak izan, izan zirela, eta inbasioak zauri sakonak utzi zituela nafarren gogoan.

## XI. ERREPRESIO POLITIKO ETA ERLIJIOSOA

Azken urteetako lan eta ikerketek ondo garbi erakutsi dute errepresio politiko eta erlijioso gogorra ekarri zuela konkistak. Bixente Serrano Izkok dio bi errepresio mota horiek politikoak izan zirela azken finean, bien helburua zelako konkistaren aurka agertu zirenak zigortzea. Horregatik, espetxe zigorrak erabaki ziren, eta ondasunen bahiketa eta desjabetzeak, baina baita heriotza zigorrak ere. Agaramontarren buruzagi Pedro Nafarroako mariskala sei urtez giltzaperaturik eduki zuten harik eta, 1522an, Amaiurko dorrea erori ondoren, ziegan hilda aurkitu zuten arte. Batzuek diote bere buruaz beste eginda hil zela; beste batzuek labankadez josi zutela, edo itota hil zutela.

1523an, heriotzara zigortu zituzten Biarnora ihes egindako hogeitatu bat erriberar, eta Zangoza inguruko hamabost lagun aurka isun ekonomiko gogorrak erabaki zituzten inbaditzaileek. Peio J. Monteanok dio espainolek sustatutako epaiketak eta auziak ez zirela errazak izan, auzipetuek «herriaren babes» zutelako, eta testigantza faltsu ugari egon zirelako akusatuak salbatzearen. 1522an, Carlos I.a erregeak amnistia orokorra erabaki zuen, baina kanpoan utzi zituen erbestera ihes egin zuten noble eta jauntxo guztiak. Harrapatzeko eta atxilotzeko agindu orokorra zabaldu zen haien kontra, eta exekutatu egin zituzten hainbat. Eloko seme Migel Bertizkoak Izarbeibarko altxamendua gidatu zuen. Iruñean epaitu zuten, eta, karriketatik asto baten gainean pasearazi ondoren, Piarres borroroak lepoan ebaki handi bat egin zion jendearen aurrean. Ondoren, burua moztu zion.

Errepresio horri errepresio erlijioso gehitu zioten. 1527an, konkista amaitu eta bost urtera, Erroibar, Zaraitzu eta Erronkariko inkisidore Avellanedak berrehun lagun baino gehiago giltzaperatu zituen sorginkeria leporatuta, eta horietarik 50 bat urkatu egin zituzten. Esan behar da Pirinioetako ibarrak oso nafar erregearen aldekoak izan zirela, eta Inkisizioak hain zuzen ere agaramontar izandako inguruetan zentratu zuela bere jarduna. Prozesu gehienek bertako emakumeak izan zituzten jomugan.

Espainiak konkistatik aurrera bultzatu zuen espainolismoaren defentsa zentralista gorabehera, Habsburg etxeko erregeek Nafarroako foru eskubide eta instituzio gehienak errespetatu zituzten, baina horrek ez zuen nafarren barne mina baretu. Carlos I.ak abdikazioa eman zuenean, 1555ean, Albreten koroapean Nafarroa berriro batzeko giroa piztu zen, besteak beste Nafarroako titulua zeramaten bi oinordeko zeudelako –Joana III.a Albretekoa eta Felipe II.a Es-

painiakoa—. Ezerezean geratu zen dena, bistan denez, eta Nafarroak Espainiari lotuta jarraitu zuen.

Ondoriorik gabe? Gogo onez? Ez du ematen. Alvaro Adotek berak argitaratu berri duen *Navarra, julio de 1512. Una conquista injustificada* liburuak Francesco Guicciardini diplomatiko italiarraren lekukotasuna dakar, orain arteko fidelen eta objektiboenetako bat, neutrala zelako. Bertan dioenez, 1512an nafar gehienak Joanes Albretekoaren alde zeuden. 1512an. Artean dena etortzear zela.

## **XII. KONKISTAREN ONDORIOAK: MODERNOAGOA, KONTROLATUAGOA, UNIFORMEAGOA**

Nafar guztiak Andaluziara erbesteratzeko asmoa ibili omen zuten Espainiako agintari nagusiek 1516an, Fernando Katolikoaren heriotzaren osteko eze-gonkortasuna aprobetxatuz inbaditzaileen aurka izan zen altxamendua zigortzeko. Nafarrak deserritu, eta hemengo lursailak lugorri eta larre huts bihurtu nahi omen zituen Cisneros kardinalak, baina hiriko harresiak eta dorretxeak baino ez zituen eraitsi. Espainolek horrela inausi zituzten Melida, Gazteluberri, Lizarra, Murillo, Xabier, Arguedas, Peña, Uxue, Eslaba, Aguilar eta beste hamaika tokitako gotorlekuak.

Inbasioak ekarri zuen ondorio ikusgarrienetako bat horixe izan zen, Nafarroako babes sistemaren suntsiketa orokor eta planifikatua, baina zigorrak eta mehatxuak asko izan ziren, eta oso gogorrak. Konkista ez zen, beraz, horren lasaia izan. 1513rako, egoerak bueltarik ez zeukala esan badaiteke ere, hori bezain egia da Espainiak ia mende bat behar izan zuela konkista finkatzeko. Txosten ofizial guztietan, behintzat, begi bistakoa da militarren kezka, espainolak ez baitziren nafarrez fio. Agintariek Gaztelako edo Aragoiko soldaduak eskatzen zituzten beti, Nafarroako gotorlekuak zaintzeko; kanpotarrak beti, inoiz ez nafarrak. Felipe II.ak 1572an Iruñeko gotorlekua altxatzea erabaki zuenean, bi arrazoiengatik egin behar zela esan zuen: «Kanpokoengandik defenditzeko, eta nafarrei eusteko».

Ondorioei buruz hitz egiten hasita, ez dira ahaztu behar gerrak sortutako kalte materialak. Gotorlekuen desagerpen ia sistematikoak ondare arkitektoniko eta artistikoa suntsitu zuen. 1512ko urriaren 21ean, suak Monjolose eta Burgi herriak erraustu zituen; lehena, Albako dukeak zigortuta, eta bigarrena, Albreteko nagusiaren aginduz berdinduta. Nafarroako erregeak berak hiriburuari setioa egitea erabaki zuenean, bere armadako mertzenario laskenete alemaniarrek harropaketan aritu ziren inguruko herrietan, eta jabego asko hondatuta geratu ziren. 1513an, Iruñeko Gorteek argudiatu zuten ezin zutela zerga gehiago ordaindu,

«frantses armadak eragindako hondamendiagatik». 1514an, «hemen egondako bi armadek eragindako hondamendia» aipatzen da.

### XIII. IZURRIAREN ZIGORRA

Erdi Aroko izurriteek Nafarroan eragindako ondorioak aztertu ditu Peio J. Monteano historialariak. Gaixoaldiak aztertzea oso garrantzitsua da, zigor biblikoari buruzko testigantza apurrek agiri ofizial askok baino gehiago erakusten digutelako XVI. mendeko gizon-emazteen bizitzaren gorabeheretz.

Horrela dakigu armaduren eta lantzen harrabotsaren oihartzuna oraindik airean zela 1523ko udaberrian Tuteran aldean izurrite berri baten notizia zabaldu zenean. Agintariak, ohi bezala, hiriko sarrerak ixteko agindua eman zuten, baina, harresiak erauzi berriak zirenez, bideak kontrolatzea zailagoa zen. Ohiko neurri guztiak alferrikakoak izan ziren, eta izurria Zangozara iritsi zen handik gutxira. 1524an, egoera kontroletik kanpo zegoen. Teniente batek kontatu zuen ihesean zebilen jendearekin topo egin zuela, eta hiri barruan soilik txiroenak gelditzen zirela, ateratzeko inolako aukerarik ez zutenak. Hiria izu-laborriak hartuta omen zegoen, eta oso arriskutsua zen bertara sartzea, «aire ustela» arnaste hutsagatik hiltzen baitzen jendea. San Joan egunean bakarrik, hogeita bost lagun gaixotu omen ziren, eta egun bakar batean, hamar hil ziren.

Gaixo gehienak haurrak eta emakumeak ziren. 1599ko izurritean Iruñean hil zirenen bi herenak emakumezkoak ziren. Jende xumea, toki itxietan bizi zena eta familia giroan lan egiten zuena; hots, kutsatzeko arrisku bizian zena. Aberratsek, nobleek eta funtzionarioek defentsa hobea zuten, pobreziatik urrun bizi zirelako. Konkistak eragindako kalte materialei, beraz, aldikako gaixoaldien zafaldiak gehitu behar. Baina makurrak betikoak zigortu zituen.

### XIV. EMAKUMEAK, KALTETUENAK

Konkistak ekarri zituen heriotza, erbestealdi eta zigorren ondorioz –zigor usuena gizonen erbestea izan ohi zen–, emakume asko eta asko aurrera ateratzeko baliabiderik gabe geratu zen, eta pobrezia gehiago zabaldu zen. Baina beste aldaketa sotilago batzuek benetako iraultza eragin zuten emakumeen egoeran.

Kontuan hartu behar da XVI. mendean estatu modernoak egituratzen hasi zirela Europa osoan, eta horrek *rex publica*-ren hegemonia ekarri zuela: gizartearen kontrola. Espainiako errege-erreginek gogoz sustatu zuten kontrarreforma erlijiosoak, gainera, diziplina moralaren gorazarrea ekarri zuen. Amaia Nausia historialariak azpimarratu du Eliza katolikoak asko estutu zuela ortodoxia, ezarritako ordena arriskuan jarriko ez lukeen gizabidea alegia, eta moral

kristauaren araberako jarrerak gogortu egin zirela. Emakumeak sukar arauemai-le horren erdi-erdian geratu ziren, emakumeak, ortodoxia kristauarentzat, izaki garbienak eta, era berean, izaki arriskutsuenak zirelako: tentazioa haien baitan bizi omen zen.

Sorginkeria aipa dezagun. Giza ehiza horretan, hirurogei lagunetik gora exekutatu zituzten 1610a bitarte, eta Zugarramurdi inguruan egin zen prozesu handian, 1.271 lagun susmagarritzat jo zituzten. Jesus Mari Usunarizek, *Akelarre, la historia de la brujería en el Pirineo* lanean kalkulatu du Baztan-Bidasoa inguruko populazioaren laurdena zela hori. Gehienak, emakumeak. Haietarik asko eta asko sendalariak edo emaginak ziren.

Moraltasun sukar hori Nafarroa Beherean eta Biarnon hazten ari zen giro protestante kultu eta heterodoxoari kontra egiteko modu bat zen, noski, joera horrek auzitan jartzen baitzuen hierarkia katolikoaren botere mugagabea, eta heterodoxiaren kutsaduraren kontrako lehen murrua Nafarroan paratu zuen Espainiak. Horregatik, balio katoliko zurrunen transmisioak garrantzi handia hartu zuen gure lurraldean. Eta moralistek emakumeak paratu zituzten frontearen lehen lerroan. Bigarren zutoina, berriz, irakaskuntza publikoa izan zen.

## XV. KONTRARREFORMA IRAKASKUNTZAN

Konkistaren beste ondorioetako bat hain zuzen ere irakaskuntza publikoaren antolaketa izan zen. 1499ko uztailan, Joanes eta Katalina errege-erreginak juduen sinagoga eman zioten Iruñeko herriari, bertan Gramatika Ikasketak paratu eta maisuen eta eskolaren administrazioa eramateko.

Konkistaz geroztiko Nafarroa horretan irakaskuntzak izan zuen garrantzia aztertu du Roldan Jimenok. Eta, ondorioztatu duenez, XVI. mendean Nafarroa-ko ikastetxeetan ezarri zen ortodoxia katolikoaren bidez, Nafarroaren anexioa sendotu eta betikotu egin zen. Eta Nafarroa Beherean gertatzen ari zenak ondorioak izan zituela uste du berak.

Joanes Leizarraga apaiz protestanteak umeentzako euskarazko eskolak sustatu zituen Nafarroa Beherean, Joana III.a erreginarene babespean eta kalbionismoaren giro ez horren zurrunaren arrimuan, baina Nafarroa Garaian tradizio ortodoxoa nagusitu zen. «Herria alfabetatzeko eskolak eratu zituen heresiak», dio Roldan Jimenok,

autoformaziorako baliabideak emanez, baina ortodoxiak nahiago izan zuen, hasieran behintzat, epe laburrean seguruagoa zen metodoa ezarri, saihestuz eskuliburuak eta liburu heretikoen arazoa: alegia, herriari ahoz irakastea hobetsi zuen, haur zein helduei latinezko otoitzak eta oinarrizko doktrinaren zenbait pasarte errezitaraziz.

Trentoko Kontzilioko erabaki guztiak –funtsean, hierarkiaren boterea sendotzea, eta heresia eta interpretazio heterodoxo guztiak ezestea– aho batez beretu zituzten Iruñeko artzapezpikuek. Bide batez esanda: denak kanpotarrak. Konkistari lotuta etorri zen beste ondorioetako bat elizbarrutien berrantolamendua izan zen. Baionako artzapezpikutzaren menpean zeuden Nafarroako eta Gipuzkoako eremuak –Hondarribia, Bortziriak, Malerreka eta Baztan–, Iruñeko artzapezpikuaren menpean jartzeko eskatu zuten gorteez, elizaren barruko mugak eta muga politikoa bateratzeko. Euskara beti egon zen baztertuta, salbu eta Nafarroa Beherean, eta oso tarte txikian.

Nafarroako egoera linguistikoa apenas aldatu zen. Konkista aurretik ere, XIV. mendean, nafar erromantzea gaztelaniaren antz gero eta handiagoa hartzen hasia zen, eta konkistaren ondoren erabat urtu zen haren uretan. Euskara artean ere Nafarroa ia osoan herritarren hizkuntza bazen ere, oso gutxitan gainditu zuen arlo pribatuaren eremua. Jimeno Juriok dio Iruñea bera, XV. mendean, nagusiki elebiduna zela. Joxe Azurmendik idatzi izan du konkistak galarazi ziola Euskal Herriari Nafarroa izatea euskara ofizial deklaratu zuen estatua, baina Xabier Erizek ez du halakorik uste, eta aurreko mendeetako joerak jarraitu egin zuela dio berak. «Ez dirudi alde kualitatiborik dagoenik Nafarroako konkista baino lehenagoko eta konkista ondoko hizkuntz jarrera eta portaeretan».

Nafarroa, beraz, lurralde politikoki modernoagoa zen XVI. mendearen bukaeran, baina, era berean, lurralde kontrolatuagoa, uniformeagoa eta zanpatuagoa ere bai.